

*Amamari:*

Negua dela senti dezaket. Soa, nire logela kanpoaldetik inguratzen duen lorez osatutako arkuan dut itsatsita, eta zure arima ez bezala, hutsik dago. Ez lore ez arantza; negua da, baina udaberrian itzuliko dira, inoiz baino kolore eta xarma biziagoarekin.

Zurekin ez da berdin gertatuko ordea.

Lau urtarotetik gogorrena aukeratu zenuen alde egiteko, eta ez da kasualitatea; kausalitate hutsarengatik izan zen, inoiz ezagutu dudan etxekoandre, ama, alaba, amama, lagun, konfidente, emazte... emakume gogorrena izan baitzara. Arkuan lore bakarra geratu da haize bortitz honen aurrean biziraun nahian, eta nik, lore hau, zure irudiarekin lotu dut.

Lorearen korola sei petalok osatzen dute soilik, zein baino zein erraiei indartsuago eutsiz. Lehenengo petalo horitsuan zure bizitzaren zentzua aurkitu dut, eta bere esentziaren bilatzen lanetan murgilduz, erabakitzearekin bataiatu dut zure bizia izan zena. Bai, erabakitzen pasa zenituen 85 urteak, betiere ingurukoen poztasuna bermatuko zuen erabakia hartzen zenuen; haien zoriontasuna somatzean zu ere inor baino zoriontsuago baitzinen. Ogi apur batetik hamar zati gehiago ateratzeko gai zinen, gure ongizate eta bizipoza biderkatu nahian, baina oker zenbiltzan. Guk bizipoza bermatuta genuen aspalditxotik; bizipoza zeu zinen.

Bigarren petalora salto egin dut, eta hara non zure autodefinituarekin topo egin dudan. Ez da samurra zuretzako adjektibo bakarra aurkitzea, baina hainbat zantzu eta sentipeni erreparatuz, konparaezina zarela baieztatu dut, nahiz eta zenbait akatsen hezetasuna somatu, ongiaren nahiarekin erraz xukatu baitzenituen. Konparaezinarekin nahikoa ez eta *Zarama* taldearen kantu zahar baten letrak ere zuri buruz dabiltzala dirudite: *Biziaren argia, gaueko eguzkia, haur batentzat irria, etxe baten bizia, gezurraren egia, munduko izerdia*.

Petaloz petalo, hirugarrenera iritsi naiz, eta zure irakaspenetako batzuk azaleratu zaizkit. Hasteko, hutsetik infinitua atera daitekeela erakutsi zenidan; irudi, objektu nahiz errealitatea ikustean, begirada da gakoa, eta nahi dugun eran hobetu dezakegu, ertzetako angeluak aldatuz, eta borobilari forma obalatua emanaz. Gauzak horrela, zuri esker dakit bizitza ez dela astelehen konstante bat, are gehiago, astelehenek ezkutuan zuten xarma berreraiki zenuen nigan. Jarrera estoikoa zenuela esatera ausartu naiteke; autokontrolaren bidetik zorigaitzei alde ona ateratzen zenien, eta zoriontasuna barneko erraietatik ateratzen jardun zenuen, gauza materialei kasik kasurik egin gabe. Bai, adornorik gabeko dama zinen.

Oharkabeen laugarren petalora heldu naiz eta zure esentzia definizio eta irakaspenekin batera, zailtasunek ere zure bizitzan izan duten presentziaz jabetu naiz. Oso gazterik deserriratu zintuzten Elorrixoko berotasunetik Bergara arrotzera, eta *Askatzu* baserriko neskame bihurturik pasa zenituen ondorengo urteak, gainera ezin aipatu gabe utzi Gerra Zibil garaian nola ez zenuen ikusi zure bi neben itzulera. Bergaratar askoren bizilekuak konkistatu zenituen zure xamurtasun eta umoreaz esnesaltzaile jardunean aritzen zinen aldiro. Eta nola ahaztu zure zailtasunei aurre egiteko hain gogoko eta beharrezko zenuen fedea. Oroitu dezaket elkarren ondoan lo egiten genuenean nola kizkurtzen nintzen izaren azpian, nola estaltzen zenizkidan hanka, sorbalda eta besoak Ipar Poloan bageunde bezala, eta nola lokartzen nintzen fondoan zure errezu amaitezinen koroa entzuten nuelarik.

Bosgarren petaloan zure egunerokotasuna aztertu dut, eta kontaezinak dira elkarrekin ikusitako *Hitzetik Hortzera* guztiak eta Xabier Euzkitzeren "*Pilotazaleok, gabon deizuela*" esaldi bakoitza. Eta nola ahaztu Goenkale! Zure gorraizearen erruz bolumena auzo osoak entzuteko moduan igotzen zenuen, azken urteotan hori izan baitzen zure aferarik larriena, gaizki entzutea.

Azken petalora iritsi naiz azkenean eta hau eskertzarekin lotu dut. Enegarrenez eskertu nahi nizuke irribarre bakoitza, goizero nire eguna poztasunez ziprztintzeko zenuen gaitasuna, haize-bolada gogorrenean harresi lanak egitea,... laburbilduz, eskerrik asko zu zeu izateagatik. Zuk pairatu zenuen askatasun ezak hegoak zabaldu zizkizun besteei bizitza hobea ematerako orduan, eta eskerrik asko niri ere askatasunaren zaporea dastatzen uzteagatik.

Etxean jakinekoa dugu zure presentziaren falta ekaitz bortitz bat baino gogorragoa dela, baina poliki-poliki zure esentziaren berri izaten joan gara, gure artean hilik ez zaudela jakin dugun arte. Azkenekoz, mila esker, noizbait ikusiko gara zeruko izarrik argienean. Sarrik dioen bezala, "*bizitza heldu da eta zeure begiak ditu*". Eta nik, ongi ikusteko begirada horren laguntza beharra.

Besarkada estu bezain luze bat,

Zure Izar